

JAKINARAZTEN DA Alkateak, 2023ko otsailaren 7an honako dekretu hau eman zuela:

“Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, “Administrazio Publikoetan Lehen Esperientzia Profesionaleko Programa” finantzatzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2021eko abenduaren 13ko Ebazpenean onartzen dituen laguntzen deialdien barruan, Bergarako Udalak erabaki zuen dirulaguntza eskatzea, klima-aldaketa eta energia-trantsiziorako teknikari bat praktiketan urtebeterako kontratatzeke.

Dirulaguntza-eskaera onartua izen zen (2022/PEX/000088).

Urtarrilaren 20an emandako dekretuaren bidez, deialdian parte hartzeko Lanbidetik jasotako izangaietatik onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen, udalak onartutako betebeharrak betetzen zituzten edo ez kontuan izanda.

Dekretu berean jaso bezala eta deialdian jasotako hautaketa-prozesuari jarraituz, urtarrilaren 24an azterketa psikoteknikoa egin zen enpresa aditu baten bitartez.

Emaitzak jaso dira eta, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: Azterketa psikoteknikoaren emaitzak onartzea.

BIGARRENA: Azterketa psikoteknikoa gainditu zuen izangai bakarrak praktiketako kontratua egiteko legeak ezarritako baldintzak ez dituela betetzen kontuan izanda, eta programa honen barruan egin beharreko kontratua praktiketan izan behar denez, egindako deialdi hau hutsik aitortu beharra du udalak, eta horrela egiten da honen bidez.

HIRUGARRENA: Presazko deialdi berri bat egitea dirulaguntza hau onartutako programa eta espediente berean, eta horretarako Lanbidera kontratu honen eskaintza berri bat egitea.

LAUGARRENA: Web-orrian ere deialdi honen berri ematea.”

*Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, jakinarazpen hau udaleko web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.*

*Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsioaren aurretik, berraztertze errekurtsioa jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpen hau udaleko web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.*

*Dena den, interesdunek egoki deritzon beste edozein errekurtsio ere jar dezakete.*

*LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.*

Bergara, 2023ko otsailaren 7a  
IDAZKARIA

SE COMUNICA que el alcalde el 7 de febrero emitió el siguiente decreto:

“Dentro de las convocatorias de ayudas destinadas a la financiación del “Programa de Primera Experiencia Profesional en las Administraciones Públicas”, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia financiado por la Unión Europea, que fueron aprobadas mediante Resolución de 13 de diciembre de 2021 de la Directora General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, el Ayuntamiento de Bergara acordó solicitar una subvención para la contratación de un/a técnico/a de cambio climático y transición energética durante un año en prácticas.

La solicitud de subvención fue aprobada (2022/PEX/000088).

A partir de las personas aspirantes que se recibieron desde Lanbide para participar en la convocatoria, mediante decreto de 20 de enero se aprobó la relación provisional de personas admitidas y excluidas, en función del cumplimiento o no de los requisitos aprobados por el ayuntamiento.

Tal y como se recoge en ese mismo decreto y siguiendo el proceso de selección establecido en la convocatoria, el 24 de enero se realizó el examen psicotécnico a través de una empresa especializada.

Una vez recibidos los resultados, **HE RESUELTO:**

PRIMERO: Aprobar los resultados del examen psicotécnico.

SEGUNDO: Teniendo en cuenta que la única persona aspirante que superó el examen psicotécnico no reúne los requisitos legalmente establecidos para formalizar el contrato en prácticas, y dado que el contrato a realizar dentro de este programa debe ser así, en prácticas, el ayuntamiento ha de declarar desierta la presente convocatoria realizada, y así se hace por medio de la presente resolución.

TERCERO: Realizar una nueva convocatoria urgente en el mismo programa y expediente en el que se ha aprobado la presente subvención, y para ello realizar una nueva oferta de este contrato a Lanbide.

CUARTO: Dar cuenta de esta nueva convocatoria también en la página web.”

*Contra la resolución que se le notifica, y que es definitiva en vía administrativa, cabe interponer recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de publicación de esta notificación en la página web municipal.*

*No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se notifica podrá interponerse RECURSO DE REPOSICIÓN ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de publicación de esta notificación en la página web municipal.*

*Todo ello sin perjuicio de que los interesados puedan ejercitar cualquier otro recurso que estimen procedente.*

*FUNDAMENTOS JURÍDICOS: Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.*

Bergara, 7 de febrero de 2023  
LA SECRETARIA

